

NAZIOARTEKO PARTZUERGOAK SUSTATZEKO PROGRAMA 2019

Helburua (2. art.)	Enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzea enpresa arteko lankidetzak eginez sustatzeko. Lankidetzak eta nazioartekotzearen arloetako eragile espezializatuek egin behar dituzten ekintza horiek.
Erakunde onuradunak (3. art.)	<p>Nortasun juridiko propioa duten irabazteko asmorik gabeko erakundeak, sektorial nahiz lurraldekoak, baldintza hauek betetzen badituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Helbide soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. • Eskabideak aurkeztean EJZn alta emanda egotea. • Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea, bai eta diru-laguntzak itzultzeko ordainketak ere. • Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak ez izatea. • Ez izatea Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan. • 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluan, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzea. • 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere ez egotea. <p>Prestakuntza zentroak, sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak ez dira entitate onuradun izango.</p>
Diruz lagundu daitekeen egitatea (4. eta 5. artikulua)	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde onuradunek Bizkaiko ETEentzat sustatutako proiektuak, helburu hau dutenak: Bizkaiko enpresen arteko lankidetzan jardutea kanpora irteteko. • Diru-laguntzaren xede diren proiektuek, gutxienez, diruz lagundu daitekeen 40.000 € ko gastua izango dute. • Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du, proiektu berri bati egokitua edo 2018an laguntza jaso duen proiektu baten jarraipena (44/2018 Foru Dekretua).
Diruz lagundu daitezkeen gastuak (7. art.)	<ul style="list-style-type: none"> • Langile-gastuak: erakundeko langileen soldatak, karga sozialak, bidaiak eta ostatua (60 euro / orduko izango da diruz lagundu daitekeen gehieneko langileen kostua). • Kontratazioak: hala nola: kanpoko aholkularitza-zerbitzua, Proiektuaren koordinaziorako aholkularitza, auditoria-txostena eta proiektuaren enpresa hartzaileetako langileen bidaiak eta egonaldia. <p>Erakunde onuradunaren langileen kostua (soldata eta karga sozialak) eta proiektuaren koordinaziorako aholkularitza gastuaren batura ezin da 50.000 € baino gehiago izan proiektu berrien kasuan, eta 2018. urtean 44/2018 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako proiektuen kasuan, berriz 30.000 € baino handiagoa izan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Diru-laguntzarik jaso ezin duten gastuak (7.2 art.): hala nola: BEZa, zeharkako gastuak, kontsumoak, etab.
Laguntzen zenbatekoa (8. art.)	<ul style="list-style-type: none"> • Diru-laguntzaren portzentajea, proiektuan lortutako puntuazioaren arabera, honako hau izango da: <ul style="list-style-type: none"> - 60 puntu baino gehiago: % 80. - 30 eta 60 puntu artean: % 60. - 30 puntu baino gutxiago: % 0. • Erakunde onuradun bakoitzeko gehienez eman daitekeen zenbatekoa: 75.000 euro, proiektu berrietarako edo 50.000 euro 44/2018 Foru Dekretuaren babesean proiektuetarako.
Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea	<p>189/2018 Foru Dekretua, abenduaren 26koa. Honen bidez, Nazioarteko Partzuergoak Sustatzekoari buruzko Programa onartzen da (BAO, 12. zk., 2019ko urtarrilaren 17koa).</p> <p>Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka prozedura erabiliko da (9. art.).</p>
Epeak (6. eta 10. artikulua)	<ul style="list-style-type: none"> • Eskabideak aurkezteko epea: 2019ko martxoaren 1etik apirilaren 1eko 13:30era arte. • Proiektua burutzeko epea: 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era arte. <p>Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar dira (www.bizkaia.eus/Sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan behar da (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea, ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6an eska daiteke.</p>